



BANILLAZ BETETAKO MANDARINA

OSAGAIAK

(4 pertsonarentzat)
200 ml Mandarina-zuku (8 mandarina)
1 Arrautza oso
1 Arrautza-gorringo
20 gr Azukre
1 adar Banilla

PRESTAKETA

Koilara batekin hustuko ditugu mandarinak, azala osorik uzten saiatuta. Mandarinen edukiarekin zukua egingo dugu, eta, gero, zukua iragaziko dugu.

Zukua banillarekin, arrautza osoarekin, gorringoarekin eta azukrearekin nahastuko dugu. Suan jarriko dugu, krema ingelesa izango balitz bezala (90°C-tan) Hozten utziko dugu.

Behin hoztu denean, mandarinak bete, eta zerbitzatu egingo dugu.



PREZIOA
ERTAINA



DENBORA
50'



ZAILTASUNA
7/10



OSASUNGARRIA
7/10